


Imanol Otegi / ARGAZKI PRESS



Martin Etxeberria

Idazlea

«Denok dugu berezi egiten gaituen zerbait, baina ez da lotsatu behar»

Liburuko protagonistak bezala, egileak ere bikiak dira. Ederto ezagutzen dituzte lagun bikia edukitzearen alde onak eta txarrak. *Anaiak ematen duzue* liburuan horixe islatzen saiatu dira.

Zein da liburuaren muina?

Bi anaiak biki izateagatik bizitzen dituzten istorioak kontatzen ditugu. Jaiotzen direnean hasten da liburua, eta 12 bat urte dituztenean amaitzen. Bikien bizipen zehatzak kontatzen dira: neska berarekin maitemintzen dira, gelako pertsona jakin batekin dituzten arazoak...

Egileak ere bikiak zarete. Liburuko istorioak zenbateraino dira egiak eta zenbateraino asmatuak?

Gauza asko nahiko biografikoak dira. Jaiotzaren historia, esaterako, benetakoa da. Medikuek gure amari esan zion haur bakarra jaioko zela, eta haur handi bat izango zela; azkenean, bi jaio ginen. Bikia izateak zein abantaila dituen esaten dugu; lagun oso min bat duzula beti aldamenean, alegia. Hori guk biki aldetik ulertzen duguna da, eta, beraz, errealitatea da. Baina bada asmatutako gauza asko.

Liburuan diozuenez, bikiak izateak arazo ugari ekartzen ditu.

Egia esan, txikitik gehiago. Jendeak antz handia duten bi pertsona ikusten ditu, eta haiekin sartzen hasten dira. Baina ez bikiarekin bakarrik, inork betaurrekoak baditu, lodi samarra bada, oso altua bada... hots, gizarteak ezarriak dituen arau normal horietatik ateratzen denean, jendeak ohitura du txiste errazak egiteko edo haiekin sartzeko. Txikia zarenean, horrek eragiten

dizu. Baina gehienbat alde onak dituela esango nuke. Liburuan esaten den bezala, biki bat izatean, beti duzu lagun bat alboan. Lotura berezi bat da. Bikiak hobeto ulertzen ditu zure sentimenduak eta gertatzen zaizuna.

«Anaiak ematen duzue» esaldia maiz adituko zenuten, eta izenburua ere hori jarri diozue. Zergatik?

Bai, maiz entzun behar izan dugu esaldi hori. Horrexegatik jarri diogu izenburu hori ere. Gure asmoa bikiari buruzko istorioak kontatzea zen, ironiarekin egitea, gainera. Maiz entzun dugun esaldiari ematen


diogu nerantzuna da.

Bikiari zuzendutako liburua al da?

Ez. Bikia ez den irakurleren baten esan digu asko gustatu zaio, eta gustura egin duela barre. Liburuaren asmoa jendeak ongi pasatzea da. Edozein pertsonak jasan behar izan ditu, edozer gauzagatik, jendearen isekak. Asko arraro sentituko dira. Beraz, nik uste jendeak ongi ulertuko duela egoera, eta liburuko ideia berehala hartuko du.

Mezu zehatzen bat helarazi nahi izan duzue?

Liburuko protagonistek jendearen isekiei eta esanei hitzaren eta umorearen bidez egiten diete aurre. Denok dugu berezi egiten gaituen zerbait, baina ez da horrexegatik lotsatu behar. Umorez hartu behar da.



Izenburua: 'Anaiak ematen duzue'.
Egilea: Xabier eta Martin Etxeberria.
Marrazkiak: Jokin Larrea
Orrialde kopurua: 74 orrialde.
Argitaletxea: Elkar.

DISKOA



'Antenna'


Split 77 Deustuko laukoteak rocka, popa eta ukitu elektronikoak nahastu ditu bere lehen diskoan. 1998an Eus-

kadi Gazteak antolatutako maketa lehaketan, ikuslearen saria eskuratu zuten. Oso indartsu datorren laukotea da.

Split 77

Argitaletxea ■ Gaztelupeko Hotsak

BIDEO JOKOA




Master Rallye

Auto lasterketan parte hartzeko prest al zaudete? Jokalari bakoitzak gustuko autoa eta ibilbidea hautatzeko aukera izango du. Lasterketak, gainera, 8 lurraldetan barna bidaiatzeko aukera eskainiko dizu. Ez galdu aukera!

PlayStation 2

Argitaletxea ■ Virgin

BIDEOA



'Momo'

Momo: erlojupeko abentura filmaren euskarazko bertsioa estreinatu zuten udan. Filma zineman ikusteko aukerarik ez zenuela izan?, edo berriro ikusi nahi duzula? Ez arduratu: orain filmaren bideoa kaleratu dute, euskaraz.

Argitaletxea ■ Planeta Junior